



Olasagastiren erretratu bat eta *Padre e hijo* (1925) margolana, Donostiako Kutxa Boulevard aretoan. JUAN CARLOS RUIZ / ARCAZHO PRESS

Erretratugile, gerrak hartaratuta

Jesus Olasagastiren aro guztietako 100 margolan eta 20 marrazki daude Kutxa Boulevard aretoan

JUAN LUIS ZABALA
Donostia

Euskal Herriko beste artista askorena bezala, 36ko gerrak aldarazi zuen Jesus Olaziregi margolariaren ibilbidea. Gazterik mugimen-

du abangoardistekin izan zituen harremanek ez zuten jarraipenik izan 36ko gerraren ondoren egin zuen obran. Inguruko giro kulturalak hartaratuta, bestelako asmoak alde batera utzi eta erretratugintzan eman zituen onenak 1936tik aurrera. Horregatik oroitzen da Olasagasti bereziki erretratugile gisa, eta horregatik dago erretratuz betea egunotan Donostiako Kutxa Boulevard aretoan ikus daitekeen Olasagastiren obrari buruzko atzera begirakoa.

Kutxa Boulevard aretoko hiru solairuetako bakoitzak artistaren aro banatuko obrak jasotzen ditu. Lehen solairuan, 36ko gerraren aurretik egindako lanak daude. Horietako bat *Padre e hijo* da (Aita-semeak), 1925ekoa, Olasagastiren obrarik ezagunenetakoa.

Daniel Vazquez Diaz margolariari mirespen handia zion garai hartan Olasagastik, eta agerikoa da haren eragina. Baina baita kubismoarena eta surrealismoarena ere. Gerra hasi aurreko urteetan Parisen izan zen Olasagasti, kubistekin eta surrealistekin harremanetan, Pablo Picassorekin besteak beste. Erroman ere izan zen, Quattrocento mugimenduko artistekin harremanetan.

Bigarren solairuan 36ko gerraren ondotik 1950era bitarte egindako lanak daude, erretratuak nagusi. Gerra aurretik izandako asmo abangoardistak baztertuta, erretratugintzara bideratu zuen bere sen artistikoa Olasagastik urte horietan. Aro horretako lanek artistaren «inboluzio artistikoa» islatzen dute, Maria Jesus Lopez de Sosoaga erakusketaren komisarioaren iritziz.

Artistaren azken bost urteetako lanak, 1950 eta 1955 artekoak, sotoan daude jasota. Horien artean ere erretratuak dira nagusi, artistaren onenetakoa, Lopez de Sosoagaren ustez, argi-ilunen erabilera bereziagatik batez ere.

Erakusketa osatzen duten 100 margolan eta 20 marrazkiez gain, artistaren hainbat objektu eta dokumentu pertsonal ikusteko aukera ere badu bisitariak, Jesus Olasagasti Pablo Picassorekin erakusten duen argazki bat eta Ignacio Zuloagak Jesus Olasagastiri ida-

tzitako gutun batzuk, esate baterako; horietako bat poema gisa idatzia da, eta Olasagastirekin kritiko agertzen da Zuloaga.

VICENTE AMEZTOIRI UTZITAKO ASTOA. Vicente Ameztioi artistaren osaba zen Jesus Olasagasti, eta Vicente Ameztioi 15 urte zituela (1951ean) egindako erretratua da erakusketan jasotako lanetako bat. Olasagastik erabili eta Ameztioik oinordetzan jasotako astoa ere erakusketan dago.

Jesus Olasagastiren jaiotzaren lehen mendeurrena oroitzeko baliagarri da Kutxa Boulevard aretoko erakusketa, 1907ko abenduaren 20an jaio baitzen, Donostian. 14 urte zituela hasi zen pintura ikasketak egiten, Ascensio Martiarena irakasle zuela. 1923an, 15 urte baino ez zituela, Gipuzkoako Artista Berrien Lehiaketa irabazi zuen, Bienabe Artia eta Gaspar Montes Iturriozekin batera. Urte batzuk geroago, berarengandik ikas zezakeen guztia ikasi zuela iritzita, Daniel Vazquez Diazengana bidali zuen Martiarenak, harekin ikasten jarrai zezan.

Margolari izateaz gain, eragile eta dinamizatzaile kultural bizia izan zen Olasagasti: Euskal Artisten Elkarte kide, GU elkartearen sustatzaile eta bultzatzaile, erakusketen antolatzaile... Baina, pinturaren arloan bezala, arlo horretan ere gerrak hegoak moztu zizkion. 1955eko abuztuaren 5ean hil zen, Donostian, zirrosi baten ondorioz.

Erakusketa: *Jesus Olasagasti, 1907-1955.*

Lekua: Donostiako Kutxa Boulevard aretoa (Boulevard, 1).

Noiz arte: Abenduaren ga arte.

Harry Potterren seigarren liburua euskaraz kaleratu du Elkarrek

ERREDAKZIOA

Donostia

J.K. Rowlingen *Harry Potter eta Odol Nahasiko Printzea* kaleratu du Elkar argitaletxeak Iñaki Mendigurenek itzultita. Mago gaztearen abenturen bildumatik, euskaraz argitaratzen den seigarren liburua da. Jatorrizko bertsoan, ingelesez, jada bilduma osoa merkaturatuta dago, eta euskaraz bildumako azken lana, zazpigarrena, datorren urtean kaleratzeko asmoa du Elkarrek.

Harry Potter eta Odol Nahasiko Printzea-n Harry Potterrek Hogwartsen egiten duen seigarren urtea kontatzen da. Mutikoa haziz doa, eta jada ez da ume bat, gazte bira. Eta gazte batek izan ohi dituen kezak eta bizipenak ditu, bere magia munduan. Udaren erdia da, baina urte sasoiari ez dagoen behe lainoa ikusten da kanpoan. Harry Potter urduri dago logelari, Dursleytarrek Privet Driven duten etxean, Dumbledore maisua noiz iritsiko zain baitago. Zuzendaria azkenekoz ikusi zuenean, buruz buruko duelu beldurgarrian ari zen lord Voldemortekin, eta Harryk ezin du sinetsi orain Dumbledore maisua benetan agertuko denik hantxe, gutxien espero zitekeen lekuan.

Zergatik etorriko ote zaio zuzendaria haraxe? Zergatik ezin ote du itxaron aste batzuk barru Harry bera Hogwartsera itzuli arte? Badi-rudi Harryren seigarren ikasturteak Hogwartsen ezohiko hasiera izango duela, muggleen mundua eta mundu magikoa elkar gurutzatzen baitira.

J.K. Rowling idazleari hasieran ez zioten argitaratu nahi izan Harry Potterren libururik. Azkenean, 1997an argitaratu zuen lehenengoa eta salmenta marka guztiak hautsi zituen. Ondorengoek ere ez zituen lehenak baino erantzun txarragoa izan. Zazpi liburuetan ageri den ongiriaren eta gaizkiaren arteko borroka irakurle guztiak harapatu zituen.

ZAZPI URTETAN, 40.000 ALE SALDUTA.

Euskarazko lehen liburua 2000. urtean kaleratu zen Iñaki Mendigurenek itzultita, beste guztiak bezalaxe. Eta Euskal Herrian ere dezenteko arrakasta izan dute Harry Potterren liburuek. Lehen liburua izan zen salduena, ia 17.000 ale saldu ziren. Gainerakoek ere salmenta ona izan dute, baina askoz ere maila apalagoan, 5.000 ale inguru saldu dira bakoitzetik. Orain arteko bost liburuk kontuan izanda, 40.000 ale saldu dira guztira.

Seigarren liburua 3.000 aleko argitaraldia egingo dute, eta Euskal Herriko 300 denda baino gehiagotan jarriko dute salgai.



Multimedia erakusketa Batekmila-Euskal munduak

Irailaren 19tik azaroaren 17ra



Ganbaran

Ordutegia

Asteartetik larunbatera zabalik
10:30-14:00 - 16:00-20:30



www.gipuzkoa.net/kultura
Urdaneta kalea, 9 | 20006 Donostia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa